

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtziona dezan, hainbat elementu garrantzitsu behar ditugu:

- **Baliabide fisikoak: ekoizpen-materialak:** imanak, plastikoa eta packaging-a (kutxak, poltsak, etiketak...). **Biltegiatze eta ekoizpenerako tokia:** stock-a antolatzeko espazioa eta azken produktua sortzeko llokal txikitxo bat. Baita ere: ordenagailuak (web orria erabiltzeko) eta mugikorrak (sare sozialak erabiltzeko).
- **Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:** Produktuaren diseinuan parte hartzen duen pertsona edo diseinatzaileak (gu). Talde bezala, bakoitzak lan ezberdina egin beharko du. Batek, ekoizpena antolatuko du, bestea Marketing eta sare sozialen arduraduna izango da eta beste batek bezeroei arreta jarriko dio, horrela dena pentsatzen dugun bezala joango da.
- **Finantza- baliabideak:** Gure enpresari hasiera emateko, gure taldean bakoitzak dituen aurrezkiak batuko ditugu gure proiektua aurrera eramateko pausoa emanaz. Inbertsio bat izango da.